# LABek EAEko zerbitzuetako langileen negoziazio kolektiboari merezi duen tokia ematea exijitzen dio Hezkuntza Sailari



Gaur EAEko Hezkuntza Saileko zerbitzuetako langileen mahai parekidea, mahai negoziatzailea eta funtzioak lantzeko mahai teknikoa izan ditugu. LABetik salatu nahi dugu, mahai hauen deialdia eta dokumentazioa astelehenean jaso genituela eta gai ordenean eta dokumentuetan ekarpenak egiteko oso denbora gutxi izan dugula. Bestetik, hiru mahaien denboralizazio eskaxak ostopatzen baitu gai garrantzitsuen inguruan behar den lanketa egitea.

**XI. Hitzarmen Kolektiboaren Batzorde Parekidea**

Hezkuntza Sailak gai bakarrarekin deitu du batzorde parekidea, 2024ko Gizarte eta Funtsak, alegia. LABetik beste hainbatetan bezala, eta ikusita 15.000 euroko formazio funtsetik oso kopuru txikia erabiltzen dela, soberakina gizarte funtsetara pasatzea eskatu dugu. Hezkuntza sailetik konpromisua hartu dute gaia aztertzeko, eta funts batetik bestera ezin bada soberakina ezin bada aldatu ere, 30.000 euroko funts bakarrean barnebiltzea gizarte eta formazio funtsak. Hurrengo mahaietan adostasun batera iristea espero dugu.

Aurrekoari bigarren gai bat gehitu zaio, 2023ko akordioaren jarraipena egitea adostu baitzen urriaren 6an burutu genuen bigarren kontziliazio saioan. Izan ere, 12 Lanpostu berri txertatzea adostu bazen ere lehenengo kontziliazio saioan (eta hiru gehiago beranduago), irailaren 24an argitaratutako dekretuan, gure harridurarako, 2 lanpostu amortizatzen dira. Honek LABen ustetan Lan Hitzarmenaren urraketa bat suposatzen du, honako hau jasotzen da bertan:

12. artikulua. – Plantilla eta funtzioak. Plantila

***"6. Urtero erregularizazio hauek aplikatuko dira.... Nolanahi ere, hitzarmen hau indarrean jartzen den unean aurrekontuan dagoen langileen ordu kredituari eustea bermatzen da."***

Nolanahi ere, hitzarmen hau indarrean jartzen den unean aurrekontuan dagoen langileen ordu kredituari eustea bermatzen da."

Lanpostuen Zerrendan modifikazioak egin badaitezke ere, lanpostu kopurua mantendu behar da. Hori dela eta, LABek bere bideak, baita judiziala ere agortuko ditu.

Bukatzeko, berme klausulan jasotzen den bezala, Lan Legepeko irakasle eta hezitzaileen lan hitzarmenean, lizentzia eta baimenetan jasotzen diren hobekuntzak txertatzeko mahai bat deituko dutela adierazi digute. LABetik lanketa egiten gaude, lehenbailehen jaso daitezen eta horretarako ekarpenak bidali dizkiogu jada administrazioari.



LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

www.irakaskuntza.lab.eus

z.laboralakaraba@lab.eus
z.laboralakbizkaia@lab.eus
z.laboralakgipuzkoa@lab.eus
z.laboralakgipuzkoa1@lab.eus

## Mahai Negoziatzailea

2025eko martxoan sinatutako Lan Hitzarmenean Sare eta Sintema Informatikoen kudeaketarako langileen (IKT) kategoria txertatu zen lehen aldiz. Langile hauek 2025-2026 ikasturtean ekoizpen arrazoiengatiko kontratuekin daude, kategoria berriko lanpostu hauek Lanpostuen zerrendan txertatu bitartean. Kontratu hauen bukaera data ekainaren 30a da, Lan Hitzarmenean 10 hilbeteko iraupena jasotzen delako. Behin behinean eta salbuespenez, kontratu hauen iraupena 10 hilabetetik 12 hilabetera luzatzeko akordio proposamena aurkeztu digute, LABek eskatu bezala.

Akordio proposamenak jasotzen du, 2026-2027 ikasturtetik aurrera lanpostu hauek bakante bezala ekainiko direla eta lanpostu hauek betetzen egon diren langileek lehentasuna izango dutela. LABetik ados gaude prozedura honekin, eta akordioa gauzatzeko lanean jarraituko dugu, baina gaur ez dugu akordioa sinatu sukalde eta garbiketako kategorietan ere aplikatzea eskatzen dugulako, kolektibo hauen berezitasunei egokituta. Lanean jarraitzen dugu akordio batera iritsi ahal izateko.

Bestetik, mahaian adierazi digutenez hurrengo asteetan martxan jarriko dute profesionalizazio ziurtagiria eskuratzeko prozedura. Horretarako bi astez irekita egongo den formularioa bete beharko dugu, momentuz soilik sukaldarientzako irekiko da. Azken hau aztertzen ari gara LABetik.

Sukaldeburu eta garbiketaburu lanpostuak betetzeko barne sustapenaren prozedura adosteko negoziazioan gaude. Oraindik asetzen ez digun propoposamena ekarri dute mahaira, beraz LABek ekarpenak egingo dizkio.

## Sukalde eta garbiketako beharrak

Lan Hitzarmenean jasotako ratio eta metro jaitsierengatik sortu diren beharrei urgentziaz erantzuteko behar besteko pertsonal horniketa egitea eskatu dugu. Gainera sukaldeetan behar diren laguntza kontratuak lehenbailehen egitea eskatu dugu beste behin egoeraren larritasuna azaldu dugu mahaian eta salatu dugu beharren azterketa hau askoz lehenago egin behar zutela.

## Funtzioak

Funtzioak zehazteko mahai teknikoan azaldu bezala, hurrengo egunetan Hezkuntza Sailetik bidalitako proposamenaren gainean ekarpenak egingo digu, berriz ere.

## Tramitagunearekin arazoak

Langileek administrazioarekin tramiteak egiteko izaten ari diren zailtasunei konponbidea emateko exijitu dugu. Sindikatuok ere nekez lor dezakegu administrazioarekin harremanetan jartzea. Arazoaren jakitun direla esan dute ahalik eta lasterren irtenbide emango diotela. LABetik salatzen dugu beste behin ere langileak ziurgabetasunean eta babesgabe uzten dituztela.

## Argibideak zuzendaritzetara

LABek eskatu bezala, Lan Hitzarmen berria betetzen dela bermatzeko zuzendaritza guztietara argibideak bidaliko dituzte gaur edo bihar.

LABen lanean jarraitzen dugu.



www.irakaskuntza.lab.eus

z.laboralakaraba@lab.eus
z.laboralakbizkaia@lab.eus
z.laboralakgipuzkoa@lab.eus
z.laboralakgipuzkoa1@lab.eus

# LAB exige al Departamento de Educación que de a la Negociación Colectiva del personal de servicios de la CAV el lugar que merece



Hoy, día 8, se han celebrado la Mesa Paritaria, la Mesa Negociadora y la Mesa Técnica de Funciones del personal de servicios del Departamento de Educación de la CAV. Desde LAB queremos denunciar recibimos tanto las convocatorias de estas mesas como la documentación las este mismo lunes, dándonos muy poco tiempo para hacer aportaciones sobre el orden del día y los documentos. Además, la mala temporalización de las tres mesas dificulta trabajar sobre estos temas tan importantes.

**Mesa Paritaria del XI Convenio Colectivo**

El Departamento ha convocó la Mesa Paritaria con un único tema: los Fondos Sociales y de Formación de 2024. Como ya hemos hecho otras veces, y viendo que se utiliza muy poco el fondo de formación establecido en 15.000 euros, hemos pedido que el sobrante de dicho fondo pase a el los FondosSociales. El Departamento se ha comprometido a estudiar el tema y, si no se puede pasar el excedente de un fondo a otro, unificar los fondos social y de formación en uno solo de 30.000 euros. Esperamos llegar a un acuerdo en las próximas mesas.

A lo anterior se ha añadido un segundo tema, ya que en la segunda sesión de conciliación que celebrada el 6 de octubre se acordó hacer un seguimiento del acuerdo de 2023. De hecho, si bien en la primera sesión de conciliación se acordó incorporar 12 nuevos puestos de trabajo (y tres mas, mas adelante), en el decreto publicado el 24 de septiembre, para nuestra sorpresa, se amortizan 2 puestos de trabajo. Esto supone, a juicio de LAB, una vulneración del Convenio Laboral, en el que se recoge lo siguiente:

Artículo 12. – Plantilla y funciones. Plantilla

*"6. Anualmente se aplicarán las siguientes regularizaciones....En todo caso, se garantiza el mantenimiento del crédito horario del personal presupuestado en el momento de la entrada en vigor del presente convenio. "*

A pesar de que se pueden hacer modificaciones en la Relación de Puestos de Trabajo, se ha de mantener el mismo número de puestos. Por ello, LAB agotará esta vía y si fuese necesario la vía judicial.

Por último, nos indican que, tal y como se recoge en la cláusula de garantía, se convocará una mesa para incorporar las mejoras que se recogen en el convenio laboral del personal docente y educativo de la Ley Laboral, en cuanto a las licencias y permisos. Desde LAB estamos trabajando para que se incorporen al convenio cuanto antes y para ello ya hemos enviado nuestras alegaciones a la administración.



z.laboralakaraba@lab.eus
z.laboralakbizkaia@lab.eus
z.laboralakgipuzkoa@lab.eus
z.laboralakgipuzkoa1@lab.eus

## Mesa Negociadora

En el Convenio Laboral firmado en marzo de 2025 se incluyó por primera vez la categoría de personal de gestión de Redes y Sintemas Informáticos (TIC). Estos trabajadoren tienen para el curso 2025-2026 contratos por motivos de producción. Esto será así hasta la incorporación de estos puestos de nueva categoría a la Relación de Puestos de Trabajo. La fecha de finalización de estos contratos es el 30 de junio, ya que en el Convenio Colectivo se recoge una duración de 10 meses para este tipo de contratos. De forma provisional y excepcional, nos presentan una propuesta de acuerdo para ampliar la duración de estos contratos de 10 meses a 12 meses, tal y como solicitó LAB.

La propuesta de acuerdo recoge que, a partir del curso 2026-2027, estas plazas se incorporarán como vacantes y el personal que las haya ocupado tendrá prioridad para ocuparlas. Desde LAB estamos de acuerdo con este procedimiento y seguiremos trabajando para materializar el acuerdo, pero hoy no lo hemos firmamado porque pedimos que dicho acuerdo recoja también en las categorías de cocina y limpieza, ajustándose siempre a las peculiaridades de estos colectivos. Seguimos trabajando para poder llegar a un acuerdo.

Por otra parte, en la mesa se nos indica que en las próximas semanas se pondrá en marcha el procedimiento para la obtención del certificado de profesionalización. Para ello deberemos rellenar un formulario que estará disponible durante dos semanas, de momento sólo se abrirá para puestos de cocina. Estamos analizando esto último desde LAB.

Se está negociando el procedimiento de promoción interna para la cobertura de los puestos de responsables de cocina y responsables de limpieza. Han traído a la mesa una propuesta que todavía no nos satisface, por lo que LAB le hará alegaciones.

## Necesidades de cocina y limpieza

Hemos solicitado la dotación de personal necesario para atender de forma urgente las necesidades derivadas de las bajadas de ratios y metros recogidas en el Convenio Laboral. Además, una vez más en la mesa hemos explicado la gravedad de la situación y hemos denunciado que este estudio de necesidades debería haberse realizado mucho antes.

## Funciones

Tal y como se ha explicado en la Mesa Técnica de funciones, en los próximos días volveremos a realizar alegaciones a la propuesta remitida desde el Departamento de Educación.

## Problemas con Tramitagune

Hemos exigido que se resuelvan las dificultades que los trabajadores están teniendo para realizar trámites con la administración. Los sindicatos estamos teniendo también grandes dificultades para ponernos en contacto con la administración. Nos responden que son conscientes del problema y que le darán una solución lo antes posible. Desde LAB denunciamos que una vez más dejan a los trabajadores en la incertidumbre y el desamparo.

## Información a las direcciones

Tal y como ha solicitado LAB, hoy o mañana se enviarán instrucciones a todas las direcciones de los centros para garantizar el cumplimiento del nuevo Convenio Colectivo.

Desde LAB seguimos trabajando.



www.irakaskuntza.lab.eus

z.laboralakaraba@lab.eus
z.laboralakbizkaia@lab.eus
z.laboralakgipuzkoa@lab.eus
z.laboralakgipuzkoa1@lab.eus